



## GOBERNU BATZARRA

2025.01.14

**Alkatea:**

**Angel Martinez de Rituerto Arregi**

**Bertaratutako zinegotziak:**

**Kristina Pelaez Errazkin**

**Ander Figuerido Zubiria**

**Aitor Agirresarobe Murgi**

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko urtarrilaren hamalauan, 09:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

**Ez dira bertaratu:**

**Estitxu Kortejarena Ugarte**

**Goiuri Ezeiza Arandia**

**Idazkari akzidentala:**

**Francisco Javier Araniguría Rodrigo**

**Kontu-hartzaile akzidentala:**

**Paulino Alonso Eraso**

1. Akta hau onartzea: 2024ko abenduaren 23koa.
2. I.Q.A.k Tolosako udaleko giza baliabideetako teknikari plaza bat (a1 sailkapen taldea) hornitzeko hautaketa-prozesuaren deialdia eta oinarrien aurka aurkeztutako berraztertze helegitea erantzutea.
3. I.Q.A.k Tolosako udaleko giza baliabideetako teknikari plaza bat (a2 sailkapen taldea) hornitzeko hautaketa-prozesuaren deialdia eta oinarrien aurka aurkeztutako berraztertze helegitea erantzutea.
4. A.I.G.k Tolosako udaleko giza baliabideetako teknikari plaza bat (a2 sailkapen taldea) hornitzeko hautaketa-prozesuaren deialdia eta oinarrien aurka aurkeztutako berraztertze helegitea erantzutea.
5. Onartzea Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko abenduaren 17an onartutako hitzarmenaren estipulazioak aldatzea eta ondoren Tolosako Udalak eta Ikaztegietako Udalak lankidetzahitzarmena sinatzea.



6. Hasierako onespena ematea <<20.1 Amarotz paper-fabrika>> azpiesparruko urbanizatze jarduketa programa egikaritzeko hirigintza hitzarmenari.

7. Dekretu hauen berri ematea:

2024/2882 Dekretua: 2024/55 faktura zerrendak.

2024/2884 Dekretua: 2024/56 faktura zerrendak.

2024/2944 Dekretua: 2024/57 faktura zerrendak.

**1. AKTA HAU ONARTZEA: 2024KO ABENDUAREN 23KOA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.

**2. I.Q.A.K TOLOSAKO UDALEKO GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARI PLAZA BAT (A1 SAILKAPEN TALDEA) HORNITZEKO HAUTAKETA-PROZESUAREN DEIALDIA ETA OINARRIEN AURKA AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE HELEGITEA ERANTZUTEA.**

**IKUSIRIK**

I.- Tolosako Udalak 2024ko azaroaren 5ean, Giza Baliabideetako teknikari plaza bat (A1 sailkapen taldekoa) hornitzeko hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarriak onartu zituen; oinarri hauek 2024ko azaroaren 13an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

II.- 2024ko abenduaren 4an, Izaskun Querejeta Aguirrek oinarrien aurkako berraztertze helegitea jarri du, argudiatuz besteen artean, hautaketa jardunbide honetara aurkeztu ahal izateko titulazioa ez datorrela bat lege xedapenekin.



## KONTUAN HARTURIK

**Lehena.**- Oinarri espezifikoek diotenaren arabera, hautaketa jardunbide honetan parte hartzeko honako titulazioa eduki behar da: “Zuzenbideko gradua, Lan zientzietan gradua, antolakuntza Industriala edo parekidea”.

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 169.2 artikulua, Toki Administrazio Testu Bateratua onartzen duenak aldiz, Administrazio orokorreko azpieskala teknikoan sartzeko eskatzen den titulazioari dagokionez, Zientzietako Zuzenbidean lizentziatu titulua izatea, zientzia politikoak, ekonomikoak edo enpresakoak, Merkataritzako intendentea edo Aktuarioa izango direla xedatzen du.

Oinarri espezifikoek finkatutako titulazioak ez dute bidea ixten Toki Administrazio Testu Bateratuaren 169.2 artikuluan xedatutako titulazioei, izan ere oinarri espezifikoek “parekide” terminoa erabiltzen duenez, atea irekita uzten du administrazio orokorreko azpi eskala teknikoko beste titulazioek hautaketa jardunbidean parte hartzeko.

Hortaz, oinarriek, jurisprudentziak dioten bezala, irizpide orokor batekin finkatu ditu lanpostu honetako titulazioak, alegia, espreski adierazitako titulazioez gain, beste hainbat titulazio ere onargarriak izan daitezke lanpostuaren funtzioak eta ezaugarriak kontuan harturik.

Guzti honen ondorioa da udalak, oinarri espezifikoak onartzerako orduan, jurisprudentziak finkatutako malgutasun printzipioa erabili duela deialdia onartzerako orduan eta ez duela eskusibotasun printzipioaren alde jo.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**Lehena.**- Izaskun Querejeta Aguirrek aurkeztutako berraztertze errekurtsua ez onartzea, Giza Baliabideetako teknikari plaza bat (A1 sailkapen taldekoa) hornitzeko hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarri buruzkoa, adieraziz oinarriek finkatutako titulazioez gain, Toki Administrazio Testu Bateratuaren 169.2 artikulua xedatutako titulazioak ere oinarrietan aurreikusitako daudela eta hautaketa jardunbidean parte hartzeko aukera izango duela jurisprudentziak ezarritakoa kontuan hartuz.

**Bigarrena.**- Ebazpen hau interesatuari jakinaraztea.



**3. I.Q.A.K TOLOSAKO UDALEKO GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARI  
PLAZA BAT (A2 SAILKAPEN TALDEA) HORNITZEKO HAUTAKETA-PROZE-  
SUAREN DEIALDIA ETA OINARRIEN AURKA AURKEZTUTAKO BERRAZ-  
TERTZE HELEGITEA ERANTZUTEA.**

**IKUSIRIK**

I.- Tolosako Udalak 2024ko azaroaren 5ean, Giza Baliabideetako erdi mailako teknikari plaza bat (A2 sailkapen taldekoa) hornitzeko hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarriak onartu zituen; oinarri hauek 2024ko azaroaren 13an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

II.- 2024ko abenduaren 4an, Izaskun Querejeta Aguirrek oinarrien aurkako berraztertze helegitea jarri du, argudiatuz besteen artean, hautaketa jardunbide honetara aurkeztu ahal izateko titulazioa ez datorrela bat lege xedapenekin.

**KONTUAN HARTURIK**

**Lehena.-** Oinarri espezifikoez diotenaren arabera, hautaketa jardunbide honetan parte hartzeko honako titulazioa eduki behar da: “Zuzenbideko diplomatura, Lan zientzietan diplomatura edo parekidea.”

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 169.2 artikulua, Toki Administrazioaren Testu Bateratua onartzen duenak aldiz, Administrazio orokorreko azpieskala teknikoan sartzeko eskatzen den titulazioari dagokionez, Zientzietako Zuzenbidean lizentziatu titulua izatea, zientzia politikoak, ekonomikoak edo enpresakoak, Merkataritzako intendentea edo Aktuarioa izango direla xedatzen du. Dena den, 781/1986 Errege Dekretu Legegileak ez du arautzen ze titulazio eduki behar den kudeaketako azpi eskalan hautaketa jardunbide batean parte hartzeko.

Oinarri espezifikoez finkatutako titulazioak ez dute bidea ixten egoki izan daitezkeen beste titulazio batzuk onartzea, izan ere oinarri espezifikoez “parekide” terminoa erabiltzen duenez, atea irekita uzten du administrazio orokorreko kudeaketa azpi eskalako beste titulazioek hautaketa jardunbidean parte hartzeko.

Hortaz, oinarriek, jurisprudentiak dioten bezala, irizpide orokor batekin finkatu ditu lanpostu honetako titulazioak, alegia, espreski adierazitako titulazioez gain, beste hainbat titulazio ere onargarriak izan daitezke lanpostuaren funtzioak eta ezaugarriak kontuan harturik.



Guzti honen ondorioa da udalak, oinarri espezifikokoak onartzerako orduan, jurisprudentziak finkatutako malgutasun printzipioa erabili duela deialdia onartzerako orduan eta ez duela eskusibotasun printzipioaren alde jo.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**Lehena.-** Izaskun Querejeta Aguirrek aurkeztutako berraztertze errekurtsua ez onartzea, Giza Baliabideetako erdi mailako teknikari plaza bat (A2 sailkapen taldekoa) hornitzeko hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarri buruzkoa, adieraziz oinarriek finkatutako titulazioez gain, beste titulazio batzuk ere onargarriak izan daitezkeela hauen egokitasuna ikusi ondoren, eta hautaketa jardunbidean parte hartzeko aukera izango duela jurisprudentziak ezarritakoa kontuan hartuz.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau interesatuari jakinaraztea.

#### **4. A.I.G.K TOLOSAKO UDALEKO GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARI PLAZA BAT (A2 SAILKAPEN TALDEA) HORNITZEKO HAUTAKETA-PROZESUAREN DEIALDIA ETA OINARRIEN AURKA AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE HELEGITEA ERANTZUTEA.**

## IKUSIRIK

**I.-** Tolosako Udalak 2024ko azaroaren 5ean, Giza Baliabideetako erdi mailako teknikari plaza bat (A2 sailkapen taldekoa) hornitzeko hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarriak onartu zituen; oinarri hauek 2024ko azaroaren 13an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

**II.-** 2024ko abenduaren 4an, Amets Irastorza Garmendiak oinarrien aurkako berraztertze helegitea jarri du, argudiatuz besteen artean, hautaketa jardunbide honetara aurkeztu ahal izateko titulazioa ez datorrela bat lege xedapenekin.



## KONTUAN HARTURIK

**Lehena.**- Oinarri espezifikoek diotenaren arabera, hautaketa jardunbide honetan parte hartzeko honako titulazioa eduki behar da: “Zuzenbideko diplomatura, Lan zientzietan diplomatura edo parekidea.”

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 169.2 artikulua, Toki Administrazio Testu Bateratua onartzen duenak aldiz, Administrazio orokorreko azpieskala teknikoan sartzeko eskatzen den titulazioari dagokionez, Zientzietako Zuzenbidean lizentziatu titulua izatea, zientzia politikoak, ekonomikoak edo enpresakoak, Merkataritzako intendentea edo Aktuarioa izango direla xedatzen du. Dena den, 781/1986 Errege Dekretu Legegileak ez du arautzen ze titulazio eduki behar den kudeaketako azpi eskalan hautaketa jardunbide batean parte hartzeko.

Oinarri espezifikoek finkatutako titulazioak ez dute bidea ixten egoki izan daitezkeen beste titulazio batzuk onartzea, izan ere oinarri espezifikoek “parekide” terminoa erabiltzen duenez, atea irekita uzten du administrazio orokorreko kudeaketa azpi eskalako beste titulazioek hautaketa jardunbidean parte hartzeko.

Hortaz, oinarriek, jurisprudenziak dioten bezala, irizpide orokor batekin finkatu ditu lanpostu honetako titulazioak, alegia, espreski adierazitako titulazioez gain, beste hainbat titulazio ere onargarriak izan daitezke lanpostuaren funtzioak eta ezaugarriak kontuan harturik.

Guzti honen ondorioa da udalak, oinarri espezifikoak onartzerako orduan, jurisprudenziak finkatutako malgutasun printzipioa erabili duela deialdia onartzerako orduan eta ez duela eskusibotasun printzipioaren alde jo.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**Lehena.**- Amets Irastorza Garmendiak aurkeztutako berraztertze errekurtsioa ez onartzea, Giza Baliabideetako erdi mailako teknikari plaza bat (A2 sailkapen taldekoa) hornitzeko hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarri buruzkoa, adieraziz oinarriek finkatutako titulazioez gain, beste titulazio batzuk ere onargarriak izan daitezkeela hauen egokitasuna ikusi ondoren, eta hautaketa jardunbidean parte hartzeko aukera izango duela jurisprudenziak ezarritakoa kontuan hartuaz.

**Bigarrena.**- Ebazpen hau interesatuari jakinaraztea.



**5. ONARTZEA TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2024KO ABENDUAREN 17AN ONARTUTAKO HITZARMENAREN ESTIPULAZIOAK ALDATZEA ETA ONDOREN TOLOSAKO UDALAK ETA IKAZTEGIETAKO UDALAK LANKIDETZA-HITZARMENA SINATZEA.**

**IKUSIRIK**

LEHENA.- 2024ko abenduaren 16an Tokiko Gobernu Batzarrean onartu zen sinatzea Ikaztegietaiko udalarekin Lankidetzaz Hitzarmena, Tolosako udalerraren eremuan dauden hainbat ondasun higiezinak, Ikaztegietaiko Udalak eskaintzen duen hondakin bilketaren zerbitzuan sortutako gastua ordaintzeko.

BIGARRENIK. Hitzarmenaren bi estipulazioetan akatsak aurkitu dira, eta horiek aldatu behar dira:

Horrela daude orain:

\* LAUGARRENA: hirugarren paragrafoa:

*“Urteko lehen hiruhilekoan Ikaztegietaiko Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari eskatuko dio urte horretan izango duen ekarpenaren kostu banaketa. Kostu banaketa horretan zehaztuko dira aurrekarietako taulan agertzen diren ondasun horiei dagozkien kontzeptuak, aurreko paragrafoan aipatutako ehunekoak kontzeptu horiei aplikatzeko.”*

\* SEIGARRENA.

“Tolosako Udalak Ikaztegietaiko Udalari egingo dizkion ordainketen epealdiak honako hauek izango dira:

Lehenengo ekarpena: 2024ko urtarrietik 2024ko azarora.

Bigarren ekarpena: 2024ko abendutik 2025eko azarora.

Hurrengo urteetako ekarpenen epealdia abendutik azarora bitartekoa izango da.

Ordainketak egiteko epea hilabetekoa izango da, Ikaztegietaiko Udalak faktura aurkezten duen egunetik zenbatzen hasita.



Ordainketak Ikaztegietako Udalaren kontu korrante honetan egingo dira:  
ES21 2095 5020 0610 6118 5780”

Horrela izan behar du:

LAUGARRENA: hirugarren paragrafoa:

*“Ikaztegietako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari eskatuko dio aurreko urtean izan duen ekarpenaren kostu banaketa. Kostu banaketa horretan zehaztuko dira aurrekarietako taulan agertzen diren ondasun horiei dagozkien kontzeptuak, aurreko paragrafoan aipatutako ehunekoa kontzeptu horiei aplikatzeko.”*

“ SEIGARRENA.

“Tolosako Udalak Ikaztegietako Udalari ordainketa egiteko epea hilabetekoa izango da, Ikaztegietako Udalak faktura aurkezten duen egunetik zenbatzen hasita.

Ordainketa Ikaztegietako Udalaren kontu korrante honetan egingo da:

ES21 2095 5020 0610 6118 5780”

HIRUGARRENA. Kontu-hartzailearen txostenak honakoa proposatzen du: bosgarren estipulazioaren amaieran ondorengo esaldia eranstea:

*“Horretarako, Ikaztegietako Udalak faktura bat aurkeztuko dio Tolosako Udalari hurrengo urteko urtarrilaren 22a baino lehen”*

## KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Ikaztegietako Udala administrazio publikoa dela, eta beraz, Tolosako udalerraren eremuan dauden hainbat ondasun higiezinak, Ikaztegietako Udalak eskaintzen duen hondakin bilketaren zerbitzua erabiltze aldera, lankidetzahitzarmena egin behar dutela Tolosako Udalak eta Ikaztegietako Udalak, aintzat hartuta zer dioen 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak.





**BIGARRENA.-** 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, Atariko Tituluaren VI. kapituluan jasotzen duela administrazio publikoek zer arau-aurreikuspen bete behar dituzten hitzarmenak sinatzean. Sinatu nahi den hitzarmena bat dator Lege horretako Atariko Tituluaren VI. kapituluan jasotako araeekin; zehazki, 47. artikulutik 53. artikulura bitartekoetan xedatutakoaren arabera arautuko da.

**HIRUGARRENA.-** Aipatutako Legearen 50.1 artikulua xedatzen duenez, justifikazio-memoria bat behar duela hitzarmenak. Horri dagokionez, hemen jaso da informazioa:

**LAUGARRENA.** Hitzarmena egiteari dagokionez, alkateak daukala horretarako eskumena, kontuan hartuta zer xedatzen duen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1. artikuluan. Hala ere, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuak Tokiko Gobernu Batzarrari ematen dio eskumena, betiere 9/2017 eta 38/2003 legeen aplikazio-eremutik kanpoko hitzarmenekin.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko abenduaren 17an onartutako hitzarmenaren estipulazioak aldatzea eta ondoren Tolosako Udalak eta Ikaztegietako Udalak Lankidetzaren Hitzarmena sinatzea Ikaztegietako Udalarik Tolosako udalerrian eremuan dauden hainbat ondasun higiezinak sortutako gastua ordaintzeko.

**BIGARRENA.-** Aldaketak hauek dira:

Horrela daude orain:

\* **LAUGARRENA:** hirugarren paragrafoa:

“Urteko lehen hiruhilekoan Ikaztegietako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari eskatuko dio urte horretan izango duen ekarpenaren kostu banaketa. Kostu banaketa horretan zehaztuko dira aurrekarietako taulan agertzen diren ondasun horiei dagozkien kontzeptuak, aurreko paragrafoan aipatutako ehunekoa kontzeptu horiei aplikatzeko.”



\* BOSGARRENA.

“Zerbitzuaren kostu guztiak Ikaztegietako Udalak bere gain izango ditu eta Tolosako Udalak aurrerakin zatian agertzen diren etxebizitzek Tolosaldeko Mankomunitateari sortutako gastua ordainduko dio.”

\* SEIGARRENA.

“Tolosako Udalak Ikaztegietako Udalari egingo dizkion ordainketen epealdiak honako hauek izango dira:

Lehenengo ekarpena: 2024ko urtarriletik 2024ko azarora.

Bigarren ekarpena: 2024ko abendutik 2025eko azarora.

Hurrengo urteetako ekarpenen epealdia abendutik azarora bitartekoa izango da.

Ordainketak egiteko epea hilabetekoa izango da, Ikaztegietako Udalak faktura aurkezten duen egunetik zenbatzen hasita.

Ordainketak Ikaztegietako Udalaren kontu korrante honetan egingo dira:

ES21 2095 5020 0610 6118 5780”

Horrela izan behar du:

LAUGARRENA: hirugarren paragrafoa:

“Ikaztegietako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari eskatuko dio aurreko urtean izan duen ekarpenaren kostu banaketa. Kostu banaketa horretan zehaztuko dira aurrekarietako taulan agertzen diren ondasun horiei dagozkien kontzeptuak, aurreko paragrafoan aipatutako ehunekoa kontzeptu horiei aplikatzeko.”

\* BOSGARRENA.

“Zerbitzuaren kostu guztiak Ikaztegietako Udalak bere gain izango ditu eta Tolosako Udalak aurrerakin zatian agertzen diren etxebizitzek Tolosaldeko Mankomunitateari sortutako gastua ordainduko dio. Horretarako, Ikaztegietako Udalak faktura bat aurkeztuko dio Tolosako Udalari hurrengo urteko urtarrilaren 22a baino lehen.”



“ SEIGARRENA.

“Tolosako Udalak Ikaztegietako Udalari ordainketa egiteko epea hilabetekoa izango da, Ikaztegietako Udalak faktura aurkezten duen egunetik zenbatzen hasita.

Ordainketa Ikaztegietako Udalaren kontu korrante honetan egingo da:

ES21 2095 5020 0610 6118 5780”

**6. HASIERAKO ONESPENA EMATEA «20.1 AMAROTZ PAPER-FABRIKA» AZPIESPARRUKO URBANIZATZE JARDUKETA PROGRAMA EGIKARITZEKO HIRIGINTZA HITZARMENARI.**

**IKUSIRIK**

**LEHENA.-** Tolosako Gobernu Batzarrak, 2010eko abenduaren 27an egin zuen bilkuran, hasierako onespena eman ziola «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparruko hitzarmenari, Orubide SAK sustatutakoari. Espedientea jendaurrean egon zela hogeigegunez, 2010eko urtarrilaren 19an GAO n publikatutako iragarkiaren bitartez; eta epe horretan alegaziorik aurkeztu ez zenez ebazpena behi betikotzat hartu zela (2011/03/23 GAO, 55 zk.). Hala, 2011ko martxoaren 24an, adierazitako hitzarmena sinatu egin zela.

**BIGARRENA.-** Tolosako Udalaren eta Visesaren arteko 2022ko apirilaren 4ko hitzarmenaren jarraipen-batzordean, Tolosako Udalak adierazi zuela beharrezkoa zela 2011ko martxoaren 24an sinatutako kontzertazio-hitzarmena «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparruaren egungo testuingurura eguneratzea.

**HIRUGARRENA.-** Hori horrela, 2024 azaroaren 27an, Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.-Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA enpresak, Carlos Quindós Fernándezek ordezkaturik, Tolosako Udalean erregistro elektronikoko bitartez (2024-14889 sarrera zenbakia) «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparruko kontzertazio-hitzarmen berria zein birpartzelazio-proiektuaren aldaketa jasotzen duen proiektu berria aurkeztu zituela.

**KONTUAN HARTURIK**

**LEHENA.-** Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak baduela gaitasuna administrazio publikoaren aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion.

**BIGARRENA.-** Gaiaren inguruan egiten den **azterketa juridikoa**:



## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Kontuan izanik Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160. Artikuluan, zein zazpigarren xedapen gehigarrian, hitzarmenak izan beharreko gutxieneko edukiaren inguruan araututakoa, adierazi daiteke oro har Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.-Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA enpresak aurkeztutako hitzarmenak betetzen dituela bertan jasotakoa.

II. Hitzarmenaren izapidetzari dagokionean, hirigintzako hitzarmenaren hasierako testua jendaurrean jarriko da gutxienez hogeit egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean iragarritz, egoki iritzitako alegazioak egin daitezten. Halaber, hitzarmena udalaren egoitza elektronikoan ere egon beharko du interesdunen eskura.

Jendaurrean jartzeko epea amaituta, eta, hala badagokio, aurkeztutako alegazioei erantzuna eman ondoren, hitzarmena behin betiko onartu eta sinatuko da. Edozein kasutan, hitzarmena behin betiko onartutzat joko da alegazio aldiaren alegaziorik aurkezten ez bada.

III. Alkatetzari dagokio «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparruko kontzertazio-hitzarmena berriaren hasierako onespina ematea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.j) artikulua). Tolosako Udalaren kasuan, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatuta dago 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuaren bidez.

## AZTERKETA JURIDIKOA

«20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparruko kontzertazio-hitzarmen berriak betetzen ditu ekainaren 30eko 2/2006 lurzoruari eta hirigintzari buruzko Legearen 160. artikuluan xedatutako eskakizunak. Izan ere, hitzarmena jabe bakarrak (ordezkaritza bitartez) bultzatzen du, edukia eguneratu da «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparruaren egungo testuingurura, batez ere, Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren bigarren aldaketan zein Urbanizatze Jarduketa Programaren lehenengo aldaketan aurreikusitakora eta jada aurkeztu da udalean birpartzelazio-proiektuaren aldaketa jasotzen duen proiektu berria. Gainera, urbanizazio-kargen %7ko bermea emateko konpromisoa hartzen da. Beraz, hasierako onspena eman daiteke.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Hasierako onspena ematea «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparruko Kontzertazio Hitzarmen berriari (erantsitako dokumentua 1), honako baldintzapean:

- Kontzertazio Hitzarmena sinatu aurretik, urbanizazio-kargen zenbatekoaren %7ko abala aurkeztea.



**BIGARRENA.-** Kontzertazio Hitzarmen berriaren testu osoa jendaurrean jartzea hogeit egunez, alegazioak egin ahal izateko, eta dagokion iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta hedapen handieneko Gipuzkoako Lurralde Historikoko egunkarian edo egunkarietan. Halaber, hitzarmena udal honen egoitza elektronikoan ere eskura jartzea, helbide honetan: <https://www.tolosa.eus>.

**HIRUGARRENA.-** Xedatzea hitzarmena behin betiko onartutzat joko dela alegazioaldian alegaziorik aurkezten ez bada.

**LAUGARRENA.-** Alkate-Udalburuari ahalmena ematea adierazitako hitzarmena, eranskinak eta hauek egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetu ditzan

**BOSGARRENA.-** Erabaki hau jakinaraztea espedientearen sustatzaileari eta ondasun eta eskubideen titularrei, hogeit eguneko epean alegazioak aurkez ditzaten.

## **7. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:**

### **2024/2882 Dekretua: 2024/55 faktura zerrendak**

2024KFAK0002

### **ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

Tolosako Udaleko Kontuhartzailtza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

### **KONTUAN HARTURIK**

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

55. zenbaki duena, 831.777,70 eurokoa.



Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoak daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

### EBAZTEN DU

**LEHENA.-** Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

55. zenbaki duena, 831.777,70 eurokoa.

**BIGARRENA.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

*Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:*

*Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.*

*Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.*

**Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua.**

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARIA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



**2024/2884 Dekretua: 2024/56 faktura zerrendak**

2024KFAK0002

**ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

Tolosako Udaleko Kontuhartzailtza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

**KONTUAN HARTURIK**

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

56. zenbaki duena, 4.661,24 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

**EBAZTEN DU**

**LEHENA.-** Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

56. zenbaki duena, 4.661,24 eurokoa.

**BIGARRENA.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.



*Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:*

*Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.*

*Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.*

**Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua.**

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARIA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**2024/2944 Dekretua: 2024/57 faktura zerrendak**

2024KFAK0002

## ALKATETZA DEKRETUA

**ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI** Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin eta 2024/2919 Alkatearen Dekretuarekin.





## KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, alkateari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

57. zenbaki duena, 225.180,42 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Alkate honek

## EBAZTEN DU

**LEHENA.-** Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

57. zenbaki duena, 225.180,42 eurokoa.

**BIGARRENA.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

*Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:*

*Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekursoa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.*

*Bestela, birjarpen errekursoaren orde, edo errekursoaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurso hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.*



***Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.***

ALKATEA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Ezkide Oteiza Larrea

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 09:45ean.**

ALKATEA

IDAZKARI AKZIDENTALA



## ERANSKINA 1

### BILDURIK

Batetik, Angel Martinez de Rituerto Arregi jauna, udal-idazkari akzidentala den Francisco Javier Araniguría Rodrigo jaunak lagunduta.

Eta, bestetik, Alba Garmendia Castaño anderea Ikaztegiako alkatea.

### **PARTE HARTZEN DUTE**

Angel Martínez de Rituerto Arregi jaunak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkartzan, alkate-lehendakari den aldetik, 2024ko abuztuaren 14ko 1867/2024 Alkatetza Dekretuan xedatutakoaren arabera egintza honetarako baimena duenak. Espedientean jasota dago erabaki horren ziurtagiria, Udaleko idazkariak emana.

Alba Garmendia Castaño andereak Ikaztegiako Udalaren ordezkari gisa, eta horretarako ahala du,

### **AZALTZEN DUTE**

**LEHENA.-** Tolosako Udalak hondakin bilketaren zerbitzua Tolosaldeko Mankomunitatearen bitartez eskaintzen die bere herritarrei. Izan ere, zerbitzu hau beharrezkotzat jotzen du abenduaren 27ko 27/2013 Legeak, Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzkoa.

**BIGARREA.-** Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauak, zerbitzu hori prestatzeagatik, Udalak legitimatzen ditu tasak ezartzeko. Honela dio bere 20. Artikuluak:

“Ordenantzak ezarri eta onartzeko erabakia hartu ondoren, Gipuzkoako udalerriek tasak finkatu eta exigitu ahal izango dituzte, foru arau honetan jasotakoari jarriki, udalaren herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziarengatik, bai eta subjektu pasiboari bereziki egokitu, eragin edo onura ekartzen dioten eta udalaren eskumeneoak diren zerbitzu publikoak emateagatik edo jarduera administratiboak egiteagatik ere.”

**HIRUGARRENA.-** Horretan oinarrituta, Tolosako Udalak Ordenantza Fiskaletako 2.1.6 eranskinean arautzen du hondakinen bilketaren tasa.



## ESTIPULAZIOAK

### LEHENENGOA.- XEDEA

Hainbat arrazoi direla medio (geografikoak), Tolosako udalerrriaren eremuan dauden hainbat ondasun higiezinak, Ikaztegiako Udalak eskaintzen duen hondakin bilketaren zerbitzua erabiltzen dute.

Ondorengo aurrerakinean zehazten dira Tolosako Udalerrian kokatuta dauden etxebizitzak eta Ikaztegiako Udalaren hondakin zerbitzuaren erabiltzaileak direnak.

ALDABA AUZOA 16	
ALDABA AUZOA 003 - 1	EGUZKI TOKI
ALDABA AUZOA 003 - 2	EGUZKI TOKI
ALDABA AUZOA 003 - 3	EGUZKI TOKI
ALDABA AUZOA 006 B	BERAZUBI HAUNDI
ALDABA AUZOA 009 A	BIONA ETXEA
ALDABA AUZOA 009	BIONA ETXEA 2,A
ALDABA AUZOA 011	ESKOLA (ESKAUT TALDEA)
ALDABA AUZOA 14 B	ERROTA BERRI BASERRIA
ALDABA AUZOA 15 B	ERROTA ZAHARRA BASERRIA
ALDABA AUZOA 18 A	UGARAN GOENA
ALDABA AUZOA 18 B	UGARAN GOENA
ALDABA AUZOA 18 C	UGARAN GOENA BASERRIA
ALDABA AUZOA 18 D	UGARAN GOENA BASERRIA
ALDABA AUZOA 18 E	UGARAN GOENA
ALDABA AUZOA 19 B	UGARAN GOENA BASERRIA
ALDABA AUZOA 10	URTZAIN BASERRIA
ALDABA AUZOA 7	
ALDABA AUZOA 12	
ALDABA AUZOA 4	
ALDABA AUZOA 1	
ALDABA AZUOA 1	
ALDABA AUZOA 1-W	

**BIGARRENA.-** Ikaztegiako Udala aurrerakin zatian agertzen diren etxebizitzetzi (Tolosako Udalerrian kokatuak) hondakin bilketa zerbitzua ematera konprometitzen da.



**HIRUGARRENA.-** Tolosako Udalak Ikaztegietako Udalaren esku uzten du aipatutako zerbitzu hori ematea.

**LAUGARRENA.-** Ikaztegietako Udalak zerbitzu hori emateagatik Tolosako Udalari kobratuko dio dagokion portzentaia.

Portzentai hori, Ikaztegietan dauden zabor bilketa jasotzen duten etxe kopurua eta aurrerakinean azaltzen diren Tolosako Aldaba auzoko etxe kopurua kontuan harturik, Tolosako Udaleko etxeei egokitzen zaien portzentaia izango da.

Ikaztegietako Udalak Tolosaldeko Mankomunitateari eskatuko dio aurreko urtean izan duen ekarpenaren kostu banaketa. Kostu banaketa horretan zehaztuko dira aurrekarietako taulan agertzen diren ondasun horiei dagozkien kontzeptuak, aurreko paragrafoan aipatutako ehunekoa kontzeptu horiei aplikatzeko.

**BOSGARRENA.-** Zerbitzuaren kostu guztiak Ikaztegietako Udalak bere gain izango ditu eta Tolosako Udalak aurrerakin zatian agertzen diren etxebizitzek Tolosaldeko Mankomunitateari sortutako gastua ordainduko dio. Horretarako, Ikaztegietako Udalak faktura bat aurkeztuko dio Tolosako Udalari hurrengo urteko urtarrilaren 22a baino lehen.

**SEIGARRENA.-** Tolosako Udalak Ikaztegietako Udalari ordainketa egiteko epea hilabetekoa izango da, Ikaztegietako Udalak faktura aurkezten duen egunetik zenbatzen hasita.

Ordainketa Ikaztegietako Udalaren kontu korrante honetan egingo da:

ES21 2095 5020 0610 6118 5780”

**ZAZPIGARRENA.** Tolosako Udalak emango dizkio Ikaztegietako Udalari behar dituen datuak zerbitzua ahalik eta ondoen kudeatzeko. Datu hauek ondasun higiezinaren jabeen izen-abizenak eta helbidea izango dira.

**ZORTZIGARRENA.-** Elkarri datuen berri emateko, konfidentziasuneko eta datu pertsonalak babesteko obligazioa.

Alderdiek hitzartzen dute egoki irizten dioten informazio guztia une oro eskainiko diotela elkarri, tarifak integrazteko sistemaren ezarpen osoa eta arrakastatsua lortzeko.

Hitzarmena gauzatzeko alderdiek partekatutako informazio eta/edo dokumentazio guztia, eta baita informazio horretatik sortutako beste edozein dokumentazio ere informazio konfidentzialtzat joko da, eta horrexegatik, Estipulazio honetan xedatutakoaren arabera, informazio konfidentzial hori espresuki baimenduak geratzen direnez kanpoko inolako pertsona edo erakunderi ez transmititzeko konpromisoa hartzen dute alderdiek, salbu alderdietakoren bati legez eskatuko balitz, edo informazio konfidentzial hori osorik edo zati batean ematera legez behartua ez badago.



Hitzarmen honetatik eratorritako eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko beren parte-hartze pertsonala edo profesionala ezinbestekoa den pertsoneri soilik jakinarazi ahal izango zaie informazio konfidentziala, eta baita beren aholkularitzako zerbitzu profesionalak Hitzarmenaren edukiaren inguruan ematen dituzten beste haiei ere.

Estipulazio honetan informazio konfidentzialaren inguruan emandako xedapenak ezingo dira aplikatu hurrengo kasu hauetan: (i) informazio hori edo informazioaren zati batzuk jendartera iristeko iturria alderdiez bestelakoa izatea; (ii) alderdietakoren batengana modu ez-konfidentzian iristea, informazio konfidentzial hori emateko debekurik ez duen iturriaz bestelako iturri baten eskutik; edo (iii) alderdietakoren baten, bere aholkulari profesionalen, edo bere ordezkarien eskuetan egotea Hitzarmen hau sinatu baino lehenago.

Edonola izanik ere, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa eta hori garatzeko arauditik sortutako obligazioak betetzeko beharra daukate aldeek, Hitzarmenak eta/edo horren babesean hartzen diren akordioek indarrean dirauten bitartean, aldeetako bakoitzak bere jarduerak aurrera eramaterakoan bere kabuz eta erabakiz izaera pertsonaleko datuak tratatzen dituen edozein kasutan, datuen tratamendu horren arduraduna den heinean.

Nolanahi ere, aldeek nahitaez bete beharko dituzte Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikotik eratorritako betebeharrak, bai eta aurrerantzean ere (DBLO-EDB) eta horiek garatzeko arauditik eratorritakoak ere, hitzarmena eta/edo hitzarmenaren babesean hartzen diren akordioak indarrean dauden bitartean, bakoitzak bere esparruan gauzatzen dituen datu pertsonalen edozein tratamenduren ondorioz. Nork bere jarduerak eta bere kabuz eta bere erabakiz, arduradun gisa

#### **BEDERATZIGARRENA.-** Hitzarmenaren Jarraipeneko Batzordea

Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak betetzen direla eta bertan jasotako jarduerak behar bezala gauzatzen direla zaintzeko, Jarraipen Batzorde bat sortuko da. Batzorde hori gutxienez 2 ordezkari osatuko dute: hitzarmen hau sinatzen duen alderdi bakoitzeko ordezkari batek edo horiek izendatzen dituzten pertsonak, hain zuzen ere.

#### **HAMARGARRENA.-** EZ-BETETZEEN ONDORIOAK

Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2 artikuluan ezarritakoak izango dira.



**HAMAIKAGARRENA.-** Hitzarmena indarrean sartzea eta horren iraupena

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta 4 urteko iraupena izango du, beste lau urtez luzatu ahal izango da, aldeek idatziz adostu ondoren.

Hitzarmenaren iraupena adostu arren, edozein alderdik indargabetu ahal izango du, baina beste alderdiari idatziz jakinarazi beharko dio, hitzarmena amaitzeko aurreikusitako eguna baino bi hilabete lehenago.

**HAMABIGARRENA.-** HITZARMENAREN IZAERA ADMINISTRATIBOA

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta, bertan xedatutakoaz gain, zuzenean edo analogiaz aplika daitezkeen Administrazio Zuzenbideko arauak arautuko dute.

Hitzarmen honetatik sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren pean jarriko dira, izaera juridiko administratiboa dutelako.

**HAMAHIRUGARRENA.-** HITZARMENAREN BALIOZKOTASUNA Hitzarmen hau alderdien adostasunarekin burutuko da.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmen hau sinatu dute, adierazitako lekuan eta egunean.

Angel Martinez de Rituerto Arregi	Alba Garmendia Castaño
Tolosako Udaleko Alkate-Lehendakaria	Ikaztegietako Udaleko Alkate-Lehendakaria

ESKU92005867-744a-44ef-bbcf-f2cf7d278382



## **ERANSKINA 2**

### **“HONAKO HAUEK BILDU DIRA**

Alde batetik, ANGEL MARTÍNEZ DE RITUERTO ARREGUI jauna, Tolosako Udaleko alkate-udalburua, udal horretako ordezkari gisa.

Bestetik, CARLOS QUINDÓS FERNÁNDEZ jauna (NAN zenbakia: XX.X37.2XX-X; xede hauetarako helbidea: Gamarrako atea 1-A, 2. solairua, 01013 Vitoria-Gasteiz).

### **ESKU HARTZEN DUTE**

Lehenengoak, Tolosako Udaleko alkate-udalburuak, bertako ordezkari gisa eta egintza horretarako toki-korporazio horretako Udalbatzaren .....(e)ko erabakiaren bidez baimenduta.

Bigarrenak, "VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A.-EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA EA"ren (aurrerantzean, VISESA) izenean eta ordezkarietan (IFK: A-20306775; helbidea: Gamarrako atea 1-A, 2. Solairua, 01013 Vitoria-Gasteiz), sozietate horretako zuzendari nagusia eta ahalduna den aldetik, Fernando Ramos Alcázar Vitoria-Gasteizko notarioaren aurrean 2017ko urtarrilaren 11n egiletsitako ahalordetze-eskriuraren arabera, eta haren ahalordea eta izaera ez zaizkiola kendu edo aldatu adieraziz. Era berean, hitzarmen hau sinatzeko baimena du, VISESAko Administrazio Kontseiluak 2023ko urriaren 27ko erabakiaren bidez emana.

Esku hartzen duten xederako, alde biek elkarri dokumentu hau egiteko gaitasuna aitortzen diote; honako hauek dira

### **AURREKARIAK**

**Lehenengoa.-** 2010eko irailaren 28an behin betiko onetsi zen «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpieroaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren testu bategina.

2010eko urriaren 18an behin betiko onetsi zen Hirigintzako Jarduketa Programa. 2011ko martxoaren 22an GAOn (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala) argitaratu zen Ituntze Hitzarmenaren behin betiko onespena, eta 2011ko azaroaren 25ean Birpartzelazio Proiektua onetsi zen.

Ondoren, 2013ko uztailaren 29an, HAPBren 1. aldaketa onetsi zen.

2012. urtean Hirigintza Plana egin zen, eta urbanizazioaren 1. fasea 2014an egikaritu eta hartu zen.





**Bigarrena.-** Uraren Euskal Agentziak (URA) 2014an uholde-arriskua eguneratu ostean, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EAren jabetzakoa den 20.252 zenbakidun erregistro-finka (3. partzela) eta Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EAren 20.253 zenbakidun erregistro-finka (4. partzela) dauden eremuko hegoaldeak, irizpide berriak aplikatuz, uholde-eremu izaten jarraitzen du Araxes ibaiko ohiz kanpoko uraldietarako. Hala, eremu horretarako proposatutako garapenak zati batean uholde-eremu dira iparraldeko Q100 eta Q500 uraldiak direla eta, eta hegoaldeko garapenak guztiz gainezkatu daitezkeen eta lehentasunezko jarioaren barruan dauden eremuetan daude.

Hori dela eta, eremua ezin da egun indarrean dauden antolamendu xehe eta kudeaketako dokumentuek ezarritako hirigintza-antolamendu eta -parametroen arabera garatu.

Eremuaren hirigintza-antolamendua azaldutako errealitatera egokitzeko, eta bizitegiak garatu ahal izateko, batez ere babes publikoko etxebizitzak, Tolosako Udalak eta VISESAk erabaki dute indarreko antolamendua eta kudeaketa-tresnak aldatzea. Hala, HAPB aldatu da (2. aldaketa), hasiera batean 2022ko urriaren 4an onetsia. HAPB behin betiko onetsi zen 2024ko urriaren 23an.

Ondoren, adierazitako azpieremuaren Hirigintzako Jarduketa Programaren aldaketa ere formulatu zen, eta behin betiko onetsi zen 2024ko azaroaren 19an.

**Hirugarrena.-** VISESAk eremuaren jabetza pribatu osoa du; beraz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 2/2006 Legearen 160. artikuluko xedapenari jarraitu zaio. Horrez gain, VISESAk eskumena du dokumentu hau formalizatzeko.

**Laugarrena.-** Aurrekariak azaldu ostean, eta ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160.3 artikulua ezartzen duen epearen barruan, hitzarmen hau formalizatu da, honako hauen arabera arautuko dena:

## XEDAPENAK

### LEHENENGOA.- ITUNTZE BATZARRA ERATZEKO BEHARRIK EZA

Jabe bakarra dagoenez, eta 2/2006 Legearen 160.5 artikuluan jasotako aurreikuspenarekin bat, aldeek adostu dute ez dela beharrezkoa Ituntze Batzarra eratzea. Horren ordez, eta adierazitako arauan ezarritako xedapenak aplikatuz, VISESAk legediak batzar horri ezartzen dizkion betebeharrak hartuko ditu bere gain.

### BIGARRENA.- VISESAREN BETEBEHARRAK

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 163.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, VISESAk, Tolosako Udalaren aurrean, gehienez hilabeteko epean hitzarmen hau sinatzen denetik zenbatzen hasita, "20.1 Amarotz paper-fabrika" azpieremuaren egikaritze-unitatearen birpartzelazio-proiektuaren aldaketa aurkeztuko du.

Dokumentu horrek Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren 2. aldaketan eta Hirigintzako Jarduketa Programaren 1. aldaketan ezarritako zehaztapenak jasoko ditu, baita 2022ko apirilaren 4an alde biek sinatutako hitzarmenaren xehetasunak ere (dokumentu honi erantsi zaio 1. eranskin gisa).

### **HIRUGARRENA.- TOLOSAKO UDALAREN ESKUMENAK**

VISESak dagozkion lege-betebeharrak hausten baditu, edota hitzarmen honetan jasotakoak, Tolosako Udalak, edozein unetan, antolamendua ahalik eta hoberen egikaritzeko beharrezkotzat jotako itun-sistema ordeztu ahalko du.

Obrak edo antolamendua egikaritzearekin lotutako beste edozein jarduketak egiteko beharrezkoa bada, VISESAk Tolosako Udalari eskatu ahalko dio titularrei derrigorrez ezartzea behar diren aldi baterako zorrak eta betebeharrak.

### **LAUGARRENA.- LURSAILAK EMATEA ETA DERRIGORREZKO ETA DOAKO LAGAPENAK EGITEA**

VISESak bere gain hartzen du Tolosako Udalari kudeaketa-eremuan sartutako lursailak emateko eta Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren 2. aldaketan ezarritako xedapenen eskumenean titulartasun publikokoak diren gainazal guztiak kargarik gabe lagatzeko betebeharra.

Tolosako Udalak lagapena eragin zuten xedeetarako erabiliko ditu gainazal horiek.

### **BOSGARRENA.- HIRIGINTZA-KARGAK**

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160.2.d) artikuluan xedatutakoarekin bat, VISESA enpresak bere gain hartzen du Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren 2. aldaketan aurreikusitako hirigintza-obrak egiteko betebeharra.

### **SEIGARRENA.- BERMEAK**

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160.6 artikularekin bat, eta hitzarmen honen bidez hartutako konpromisoen berme gisa, VISESAk abala osatuko du, hirigintza-kargen % 7koa, eta hitzarmen honen hasiera bateko onespeneren aurretik aurkeztuko da.

### **ZAZPIGARRENA.- LEGE-AURREIKUSPENEKIKO ETA ONETSITAKO ANTOLAMENDUAREKIKO MENDEKOTASUNA**

Hitzarmen honetan berariaz jasota ez dauden alderdiak honako hauen arabera arautu eta interpretatuko dira: Hirigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen aurreikuspenak, Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren 2. aldaketa, eta “20.1 Amarotz paper-fabrika” azpieremuaren Hirigintzako Jarduketa Programaren 1. aldaketa, baita Tolosako Udalaren eta VISESAren artean 2022ko apirilaren 4an sinatutako hirigintza-hitzarmena ere”.



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2025IGBA0001-2025/01/14ko akta/2025/01/14ko akta ()